

Donostian, 2016ko martxoaren 3an

Agur t'erdi

Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUA eta Donostia-San Sebastián 2016 Fundazioa, lankidetzan, **Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa** izeneko proiektua **garatzen** ari gara. Aipatu proiektuak hizkuntza **eskubideen alde eta desabantailan egoera dauden hizkuntzen garapena bermatzeko dokumentu bat prestatzea** izango du helburu. Hain zuzen, 1996an Bartzelonan onartu zen Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala oinarri hartuz, berau aplikatzeko beharrezkoak diren **neurri zehatzak** bilduko ditu, Europako hizkuntza komunitate guztien hizkuntza eskubideen bermea ahalbidetzeko, hain zuzen ere.

Dokumentua osatzeko **prozesu bat abian** jarri dugu KONTSEILUAK eta DSS2016EUK. Izan ere, Protokoloa **modu parte hartzailean** osatu ahal izateko, **hiru ardatz** nagusi landu behar zirela uste genuen: oinarrizko erreferentziak zehaztu eta baloreak zein diren definitu; justiziaren ikuspegia eta ikuspegi akademikoa txertatu eta subjektuak aktibatuz proposamenak bildu.

Horretarako, gizarte-esparru anitzetan lanean diharduten eta hizkuntzaren kudeaketa bere egunerokotasunean lantzen duten **gizarte eragileengana jo nahi dugu** ekarpenak eginez **Protokoloari baliagarritasun osoa** eman diezaioten. Arloz arlokako **tailer edo lan-saio berezituak** antolatu ditugu martxoan zein apirilean zehar (erantsita duzue taula) eta **gonbidapen berezia helarazi nahi dizuegu, martxoaren 15ean, arratsaldeko 18.30ean, Usurbilen, Elhuyar Taldearen egoitza nagusian, HEZKUNTZAri buruzko tailerrean parte hartzeko**

Besterik gabe, jaso ezazu neure agurrik berezkoena.



Paul Bilbao Sarria
KONTSEILUAren idazkari nagusia

Zenbat lagun etorriko zareten baieztatzeko tailerrak@protokoloa.eus helbidera mezua igorri, arren, tailerra ahalik eta egokien antolatu ahal izateko.



Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa osatzeko

TAILERRAK

HEZKUNTZA

- Martxoak 15, asteartea
- Arratsaldeko 18.30ean
- Usurbilen, ELHUYAR taldearen egoitza nagusian

KULTURA

- Martxoak 16, asteazkena
- Arratsaldeko 18.30ean
- Donostian, Usurbilen, ELHUYAR taldearen egoitza ngusian

ADMINISTRAZIOA

- Apirilak 14, osteguna
- Arratsaldeko 18.30ean
- Iruñean, zehazteke

HEDABIDEAK, TEKNOLOGIA BERRIAK

- Apirilak, 21, osteguna
- Arratsaldeko 18.30ean
- Gasteizen, zehazteke

EREMU SOZIOEKONOMIKOA

- Apirilak 26, asteartea
- Arratsaldeko 18.30ean
- Bilbon, zehazteke

Izena emateko: tailerrak@protokoloa.eus

